

HERRI KULTURA: EUSKAL KULTURA ETA KULTURA POPULARRAK, JOSU AMEZAGA ALBIZU, UPV/EHU, 1995, 283 ORR.

Joxe Manuel Odrizola

Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea

Egia esan behar baldin badut, aspaldi honetan ez dut liburu bat hain gustora irakurri. Zer esanik ez, berriz, liburua euskaraz idatzita egotean, are erakargarriagoa egin zaidala esaten baldin badut. Zerk ikutu du, ordea, nire jakinmina hainbeste liburu honetan? Laburbeharrez, hitzotan adieraziko nuke nigan izan duen eraginaren giltzarri bat: euskaltasunaren kultura-izaera beste inon ez bezala azalduta dator (Paulo Iztuetaren gidaritza ez zen hor alferrikakoa izango noski), eta izari horren inguruko go-goeta sakon baten bila nenbilen ni aspalditik. Eta hara hor, liburu mardul honetan, nola idoro dudan harrobi oparoa.

Bistan denez, euskal kulturaren eta kultura popularren arteko harremanen teorizazio hau ez da agortzen kultura alorraren azalpenean. Euskalgintza tartean dagoenez, euskararekikoak ere hortxe daude hainbat ikuspegiz eta irizpidez hornituak. Eta hizkuntzaren eta kulturaren arteko loturaz kezkatutik dabilenarentzat aukera bikaina da liburu hau arraiok ez badu. Ea, bada, bide honetan barrena, euskalgintzaren inguruko jardunaz arduratzen den mintzoa, kultura-erakundeak ere arduratzen hasten den hizkuntzasunaren mami-gabeziari aurre egiteko.

Aurkibidearen sailkapena ikusi bezain agudo ohartuko da irakurlea liburuaren luze-zabalaz. Hona atal nagusien izendapena hurrenez hurren: «Helburuak eta bideak»; «Herria eta kultura Euskal Herrian: definizio bila» («Aurrekariak», «Nazionalismo berriaren ekarpenak», «Ikuspuntu antropologikoa»); «Euskal kultura eta kultura popularrak» («Kultura», «Kultura popularrak»); «Kultur dinamika gurutzatuak egungo Euskal Herrian: Musikagintzaren adibidea» («Euskal kantagintza berria», «Euskal rock musika»); «Ondorio orokorrak».

Amezagaren ikerlan honen oinarritzko abiaburuak zeintzu diren jakiteko, lehen atalean aurkituko ditugu hainbat zantzu eta seinale. Haseratik beretik dator gainera lehendabiziko zantzu igargarria: *«Euskal Herri berri baterantzko bidean, zein kultur egitasmo bultzatu beharko litzateke, ikuspuntu askatzaile batetik? Galdera, jakina, handiegia zen, zentzuzko erantzunik emateko. Baina beste modu honetara ere uler zitekeen: zeintzuk izango lirateke, aipatu ikuspuntutik, kulturari buruzko hausnarketa gida lezaketan ildoak?»* Ikusten den bezala, erronka itzela zeukan ikerketa-lan honek hastapenean bertan. Ideiak eta asmoak zehaztu ahala ikerketa-lan honek hastapenean bertan. Ideiak eta asmoak zehaztu ahala helburuak ere argitzen joan zitzaizkion Amezagari eta lanaren formulazioa lerro batzuk beherago era honetara zirriborratzen digu: *«Lan honen helburua, hartara, honela azal daiteke: herri kulturari buruzko ikuspuntu teorikoa garatzen laguntzea»*.

Bide horretan barrena, Euskal Herrian azken mende honetan herria eta kultura nola ulertu izan diren aztertuko digu Amezagak. Bigarren urrats gisa, kultura eta herri kultura kontzeptuen inguruan han-hemenka landurik dauden ekarpenak jaso dizkigu. Eta, azkenik, aurreko teorizazioaren frogabide bailitzan, euskal musikagintza garaikidearen zer-nolakoez azterketa enpirikoa onduko digu.

Baina goazen gehiago zehaztea, merezi du eta, ikerlan honen ardatza. Galdera batekin hasiko gara, argi-iturri egokia delakoan: *«Baina aipatu ekarpenak Euskal Herrira ekarri nahi baditugu, galdera hau datorkigu burura: herri kulturak gizarteko botere egiturakera ezberdinen ardatzaren arabera definitzen dituen ikuspuntu batetik, non kokatuko genuke "euskal/erdal kultura" auzia»*. Amezagaren gogo-muinean bi alderdi daude kulturgintzaren zurrumbilo honetan, eta bi alderdi horien arteko lotura korapilatsua askatu nahi da kosta ahala kosta. Argiago esanda, amankomunean dituzten loturak zertan diren arakatu nahi du, zertan ezkontzen diren euskaltasuna eta popultasuna. Zeren bi kultur adierazpen eta bide hauen jatorria ez baita berbera: *«Batak (euskal kultura etnikoa) tradiziozko alderdia azpimarratzera garamatza. Besteak gizarteko gatazkei begiratzea. Hemendik aurrerako eginbeharra, hartara, honelakoa ikusi dugu: egungo Euskal Herrian herri kulturaz mintzatzea ahalbidetuko digun eredu bat osatzen hastea, aldi berean tradizioetik datorren mugatu gabe, eta euskaltasunarekiko gizarteko borroken itzalpean izkutuan gera dadin ekidinez»*.

Bi mailetako kultur agerpen hauek uztarrian lotzen hasi aurretik, aurrekarien sailean, euskararen eta euskaltasunaren kontzeptuetan eragin na-

barmena izan duten autore esanguratsuenak aztertu ditu. Sabino Arana-ren nazionalismo politikotik hasita, Arturo Campionen nazionalismo kulturalera pasatzen da. Eta hemen, gure iritziz, oharpen azpimarragarri bat egiten du nafar euskaltzalearen eskutik: *«Era berean, hizkuntz egoera botere arazoan ondorioa dela aldarrikatuz, gizarteko kontraesanek kulturen eta hizkuntzen bilakaeran duten papera azpimarratzen da»*.

Ondoren, nazionalismo berriaren ekarpenak aztertzen dituen sailean, Krutwigen ekarpena luze-zabal arakutzen du etniaren ikuspuntutik. Etniaren ikuspuntua utzita, hizkuntzaren ikuspuntua dakar; eta hemen Txillardegiren ekarpen mamitsua aletzen du xeheki. Ikus dezagun Txillardegiren ekarpen hau astiroago. Amezagaren usterako, *«Funtsezko arazo bat mahai-gaineratzen du hemen Txillardegik: hizkuntza eta boterearen arteko harremana. Hizkuntzak, herrikidetasun sentiera hedatzeko duten ahalmenagatik, egitasmo politikoetatik erabiliak izan daitezke, eta dira»*. Lerro batzuk beherago honela jarraitzen du hariak: *«Gogora dezagun jadanik Campioneek ohar-tarazi zuela euskara ez dela hiltzen ari, erahiltzen ari direla. Eta ohar horren bitartez, hizkuntzen bilakaerak, beren ezaugarri propioekin baino, gizartearen gorabeherekin zerikusi handiagoa dutela azpimarratzen zuen. Baina Txillardegik zehatzagoa da auzi honetan, Campion eta geroagoko Krutwig baino. Zenbait hizkuntzalariren lanetan oinarrituz, Txillardegik botere-gune politikoek menperaturiko herrien hizkuntzak ordezkatzeko izan duten joera erakusten digu»*.

Txillardegiren ekarpena dela-eta, ez dezagun aukera hau galdu, erdi-ezku-tuan gorde izan dena azaleratzeko: ekarpen hau ez baitugu behar bezala balioetsi euskaltzaleon artean. Batez ere azken urteotakoen artean; bateko ezjakintasuna eta besteko aurreuste hutsalak izan dira, inondik ere, ekarpen hori gutxietsi dutenak. Jarrai dezagun beraz ezkutukoa agertarazten Amezagaren eskutik: *«Hizkuntzaren eta boterearen arteko lotura hau, gainera, gero eta handiagoa da Txillardegiren iritziz. Lehenago bazitekeen herri batek —hiztun komunitate batek— mendeetan zehar bizirautea, erresuma propiorik gabe. Historiak halaxe erakusten digu, euskal herriaren kasuan bertan ere. Gaur egun, ordea, hori ezin da, besteak beste botere-gune garaikideek duten ahalmen handia dela medio. Egungo mundu honetan, hizkuntzaren biziraupenak ezinbestekoa du "erresuma". Boteretik gabe, ez dago hizkuntza komunitateak irauterik. Erresumarik gabeko herria desagertzera kondenturik dagoela esango du Txillardegik, auzi honetan Campionengandik erabat bereiztuz»*.

Txillardegirekikoa amiatzeko, auzi esanguratsu bat planteatzen du Amezagak. Eta, esango nuke, planteamendua ez dela erabat ase-betetzen duen horietakoa. Txillardegiren herri-kontzeptuari (herri=etnia=hizkuntza) egindako kritikatzeko batean zera diosku: *«Baina auzia, gure iritziz, ez da etnia batek beste bat menperatu nahi izatea. Aitzitik, klase menperatzaileek baren indarpeko sektore guztiak menperatu nahi dituzte, etnia eta hizkuntza berekoak izan ala ez. Menperatze egitasmo horri kontrajartzen zaizkion hesi guztiak gainditu behar dituzte menperatzaileek: politika, ekonomia, erligioa,*

kultura zein hizkuntzazkoak. Eta beren nagusitasuna legitimatuko duen mundu ikuskeraren erainkuntzan, kultura osoa da, "ideologia" gisa ulerturik —eta ez hizkuntza soilik—, klase hauek birsortu beharko dutena. Alienazioa, beraz, kultur alienazio gisa ulertu behar dugu, hizkuntz alienazioak, dudarik gabe, garrantzi handia duelarik». Aho batez onartuko genuke kultura eta ideologiaren inguruko iruzkin hori, dudarik gabe. Alabaina, klase eta etnien arteko kateamendu hori ez dago behar bezain zehatz formulaturik; ez Amezagak formulazio hori ezagutzen ez duelako (lan honetan bertan nahiko argi eta egoki egiten baitu azalpen hori), baizik eta lanaren hasiera delako edo, Estatuaren (hegemoniaren) eta etnien arteko korrespondentzia/gatazka maila ez duelako zorrozki igarri.

Euskaltasunarekin alde edo moldez loturik dauden ezaugarri bereizgarriak jorraketa honetan, klase ikuspegiarena eta ikuspegi antropologikoa aztertzen ditu amaitze aldera. Hauen aipamen zehatzik egin gabe, egin dezagun guztien agerpen bilduma. Eta era honetara laburbiltzen ditu Amezagak ikuspuntu guztien aleak, lastoa alde batera utzita: «Aztertu ditugun iturrien artean, *Campion* eta *Txillardegi* dira herriak bereizteko maila gorenean hizkuntza jartzen dutenak; *Sabino Aran* bere arraza kontzeptuan bilatzen du bereizgarritasuna; *Federiko Krutwigek*, etnien —kontzeptu honetan hizkuntza lehen mailako osagai delarik—; *Barandiaranek* eta beste antropologo batzuek, kulturaren historian; *ETA*ren inguruko zenbait saiotan, klasean aurkitu nahi da izan da euskal herria mugatzen duen erizpide nagusia ("*Pueblo Trabajador Vasco*" delako kontzeptuaren bitartez). Bereizgarritasunaren bila, beraz, bat eginez aurkitzen ditugu ikuspuntu guztiok».

Biziki jakingarria deritzot hizkuntzaren eta kulturaren arteko gorabeherak direla eta, Amezagak egiten digun ekarpen teorikoari. Euskalgintzaren kontzeptua aski murritzurik somatzen dugu batzuek, eta urregorritzat hartzekoa da noizbehinka honelako zehaztepenok egitea gauzak beren lekuan jartzeko. Kultura edo giza praktikaren alderdi adierazlea hizkuntzaren izaera-eremutik haratago doa bere ustez: «Kultur ezarpena, hizkuntzaren edo osagai "etnikoen" ezarpena baino harago doa. Ez da geratzen hizkuntzak berezko duen mundu ikuskeraren ezarpenean, ez eta hizkuntzari loturiko elkartasun eta bereizgarritasun erizpideen ezarpenean».

Egokia iruditzen zait hizkuntzaren auzia kultura edo gizarte praktika adierazleen esparruan kokatzea. Gainerakoan, hizkuntzatasunaren tresna kontzeptuarekin ez goaz inora, galbidera ez bada. Zentzu horretan, euskalgintzaren zentzua ez dugu hautematen hizkuntza-tresna hutsarekin, kultura-sistemaren eduki adierazlez hornitua eta betea baizik. Beste modu batera esanda, kulturbitasunaren garapenik gabeko elebitasunak ez du atarramendu onik izaten gizarte prozesu hauetan. Eta, jakina, bitasun horren orde, edo horren gainera, euskal sistema kulturalaren hegemonia bermatzen bada, hainbat hobe. Horixe dugu gainera xede, bestelako normalkuntza-ideiari onartzen ez dugunez.

Orobat, euskaltasun etnikoa gaindituz, eta euskalgintzak gainerako gizartegintzekin duen barne-lotura azpimarratuz, oharpen sakonak egiten

dizkigu Amezagak. Hona adibide bat: *«Euskararen eta euskal kulturaren inguruan gertatzen direnak ulertzerik ez dago, masa komunikabideek eta kulturaren industriak hedatzen duten kulturaz eta bere funtzionamenduaz, kasu, hausnarketa egiten ez badugu»*. Hori batetik. Eta bestetik, beste hau: *«Euskal herriari bere nazio izaera ukatzen dion egitasmo politiko ekonomikoak hizkuntzaren ezarpenaz baino bide gehiagoz lortzen baitu bere nagusitasuna. Eta euskal herriak, ezaugarri etnikoen defentsan baino eremu gehiagotan erantzuten baitu, bere nortasunari eusteko»*.

Atal honekin amaitzeko hiru hipotesi formulatzen dizkigu bere pentsamenduaren funtsa bailiren. Merezi du, nik uste, hiru horiek dauden daudenean, baina laburzurrian, hona aldatzea. Ikus ditzagun:

- «Euskal kultura, zentzu etnikoan harturik, kultura popularra da, hots, sistema hegemonikoari kontrajarria dago.
- Kultura etnikoaz gain, kultura popularrak ere baditugu gizarteko sistema hegemonikoaren aurrean herri xehearen adierazle.
- Kultura etnikoa eta kultura popularrak, harreman dialektikoan daude».

Hegemoniarekiko aurkatasunean definitzen ditu bai euskal kultura etnikoa eta bai kulturak popularrak. Haren aurrean, eta gatazka-bidez, eraikitzen omen dira kultura-izariok. Horretan ados gaude. Eta baita beste honetan ere: hots, aurkatasun hori gordinagoa dela euskal kulturari dagokionez, erdal kultura popularrei dagokienez baino. Antagonismoaren muga gardenagoa dela batean bestean baino: *«Oro har, dialektika honetan aurkatasuna ez da, gaur egun, etniaren ardatzean bezain gardenena. Izan ere, indarrean dauden klase menperatzaileek hizkuntza eta kultura etnikoaren inguruan oraindik lortzeke duten hegemonia (merkatuaren edo instituzio politikoaren aurkako erantzuna sozialki garrantzitsua eta ohartua baita), sendoagoa dute kulturaren beste esparru batzuetan»*. Pare bat ohartxo egingo nituzke azkeneko lerrokada honen harian: a) Kultura sistemez ari garenean, sistema horien batasun gorena eta materiala ez dela herritasun-klasetasunaren mailakoa izaten. Alegia, klase-hegemoniarekiko aurkatasun-muga. Berez, izan ere, sistema bakar baten baitako baitira Estatu-nazioaren barneko kultura maila eta mota guztiak. Ea argiago adierazten dudan auzia: Estatu-hegemoniarekiko aurkatasuna eta gatazka ez da nazio-izaerakoa soil-soilik, eta klase-hegemoniarekiko izaera sozialekoa. Aitzitik, Estatu-sistema osobete hegemoniko bakar baten baitako aldaera eta adarrak besterik ez dira direlako kultura hegemonikoa eta kultura popularrak. Klasetasuna ere estatuen izaeran txertatua baitago ezin bereizizko lokarriz. Hori horrela izatekotan, euskal kultura eta erdal kultura antagonikoak dira, azken hau popularra izanda ere. Baldin eta, jakina, erdal kultura popularron dinamika eta mamia euskal kultura nazionalaren baitan integratzen ez badira. Eta integrazio horren adibidetzat, Amezagak, Euskal Rock Musikari buruzko ikerketa enpiriko txukun eta argigarria egin digu azken kapitulu.

Eta bigarren oharra: b) hegemonia kontzeptua euskal kulturari aplika-

tzen zaionean. Klase menperatzaileek oraindik ere euskal kulturaren gainean lortu gabe omen daukate hegemonia. Euskararen eta kulturaren gertatzen bide da hori. Nire iritzia bestelakoa da: euskara eta euskal kultura, eta beraz euskalgintzaren eremu sinboliko guztia, erabateko erdal hegemoniaren baitan garatzen da. Eta ezin da bestela izan. Izan ere, delako sistema kultural eta sinboliko hauek ez daude aurrez aurre edo bata bestearen aurrean, euskararen sistema soziolinguistikoa erdararen sistema soziolinguistikoa aurrez aurre ez dagoen bezalaxe. Hori horrela balitz, sistemon autonomiak mugarri argiak eta garbiak izango lituzke, eta sistema bakoitzak bere osagaien berrekoizpen eta logika orekatu samarra garatuko luke. Auziaren muina, hain zuzen, horretantxe datza: euskarak eta euskal kulturak ez daukala sistema autonomo gisa funtzionatzeko ahalmen-gaitasunik, eta bere osagaien bilakaeran baldintzapen bikoitza daukala. Batetik, baldintzapen kuantitatiboa: bere urritasun eta murriztasunez itota bizi da garapen-hazkundea ukatzen zaiolako; bestetik, berriz, bere baitako elementu sinbolikoak (bai hizkuntzazkoak, bai kultu-razkoak), halaber, zentzu eta izaera kualitatiboan ere errotik baldintzatuak daude: euskañola dela, kulturbitasunik gabeko elebitasuna dela, euskal pentsamendua garatzeko baldintza kultural-ideologikorik eza dela... Hitz batean esateko: sistema oso-orokor hegemonikoaren barnean kokatzen diren gainerako guztiek, Estatu-sistemaren mendekoek alegia, ez dutelako orokortasunik eta osotasunik hain zuzen. Eta hor ezin dira euskal kultura eta erdal kultura popularrak plano bereko izaera duten kultura gisa hartu, bata ez baitu zer ikusirik Estatu-kulturarekin, eta bestea, berriz, egur bereko ezpala da maila nazionalen. Halere, eta amankomunko interesak direla medio, edota garatzen duten kultura demokratikoaren kariaz, erizkide izan daitezke. Hortxe dago euskal musikaren adibidea, eta hortxe daude ikastolako guraso erdaldunen izerdi-nekeak lekuko bikain gisa.

Gure tesia sistema hegemoniko bakar baten baitako azpisistemen izaeran eta funtzionamenduan oinarritzen bada, eztabaidagarria iruditzen zaigu ondoko baieztapen hau: *«Dudarik gabe, euskaraz egiten diren giza iharduerak oro euskal kulturaren osagai direla; euskak josiak baitira. Arazoa da, ordea, euskal kulturak noraino betetzen duen funtzio egituratzailea gaineratiko kultura popularren artean»*. Hona gure zalantzaren arrazoia: euskararen baldintza diglosiko eta baldintza kultural-ideologikoetan euskaraz josten den guztia euskal kultura ote da? Ez dago batere argi auzi hori. Ezen, hizkuntzaren eragina eta izaera-indarra ez datza hizkuntzaren existentzia linguistikoa, baizik eta bere estatus soziokulturalean. Eta hizkuntza hori bigarren hizkuntza denean, bai maila kolektiboan eta bai gizabakoaren hizkuntza-jardunean, hizkuntza horrek ez du determinatzen bere eduki sinbolikoaren esanahia eta zentzua. Adibide soil bat aski izango da auzi hau argitzeko: erdal kulturaren erabateko hegemoniapean bizi den, hots, erdal kulturaren bizi eta euskaraz funtzio jakin batzuk betetzen dituen hiztunaren jarduna eta ekoizpena euskalduna dela esatea gehiegi esatea dela deritzot.

Euskal kulturaren osotasun-kontzeptuan bat ez etorrita ere, bat gatoz kul-

tura horrek izan behar lukeenaz. Eta adostasun horren adibide gisa ondo-ko pasarte hau aukeratu dut hizkuntza eta politika eskuz esku dabilatzala frogatzeko. Bihoa, beraz, liburu sendo eta sakon honen goraipagarri moduan, hizkuntz eta kultur politikaren osotasuna zirriborratzen duen ideia hau: «Hura, euskal kultura, osotasunezko alternatiba gisa kontrajartzen zaio kultura hegemonikoari, nazio kultura espainolaren ordezkari euskal kultura aldarrikatzen delarik. Kultur aldarrikapen hau, hizkuntzaren bitartez osotasun bat osa dezakeen neurrian, proiektu politiko bati loturik agertzen da, azken funtsean. Euskal kultura nazio kultura gisa eraikitzea baita aldarrikatzen dena, eta horrek Euskal Herriak egun duen estatus juridikoa eraldatzea esan gura du».